

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hezkuntza kontseilari Maria Solana Caparrosoko Virgen del Soto eta Tuterako Elvira España ikastetxe publikoetan izan da gaur

*Caparrosoko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeak 278 ikasle ditu, A,G eta D ereduetan eta PAI programan; Elvira Españan, berriz, 606 ikasle ari dira G ereduan eta British programan*

Asteartea, 2018.eko urtarrilak 23

Hezkuntza kontseilariak Caparrosoko Virgen del Soto eta Tuterako Elvira España ikastetxe publikoak bisitatu izan da. Bietan zuzendari taldeekin batzartu da ikastetxeen berri jasotzeko eta esku artean dituzten hezkuntza programak ezagutzeko. Caparroso eta Tuterako bi ikastetxeak sare publikoa osatzen duten kalitatezko zentrozen eredu dira.



Solana kontseilaria Caparroso alkate Aquilino Jiménez eta ikastetxeko zuzendari Jesus Vicente Marquésekin.

Caparrosoko haur eta lehen hezkuntzan 278 ikasle ari dira, A, G eta D ereduetan eta PAI programetan (A eta G ereduetan). D ereduaren 2016-17 ikasturtean jarri zen eta gaur egun 9 ikasle ditu, haur hezkuntzako lehen eta bigarren mailakoak. Virgen del Soto eskualdeko D eredurako erreferentzia zentroa da. Kontseilaria, Caparrosoko alkate Aquilino Jiménezekin batera, ikastetxea ezagutzen izan da Jesús Vicente Marqués zuzendariaren eskutik, eta ikastetxearen banaketa eta izandako matrikularen garapena azaldu du. Izan ere, ikastetxeko zuzendaritzak matrikulak hazten jarraitzea aurreikusten du eta horrek eskola handitzeko lanetan inbertitzea suposatuko luke. Horixe helarazi nahi izan diote kontseilariari, D ereduak ere inguruko ikasleak hartzea ekarriko baitu, zuzendariaren iritziz. Era berean, ikastetxean DBH ezartzeko hezkuntza komunitatearen eskaria ere jaso du kontseilariak.

Proiektuetan oinarritutako metodologiak lantzen dituzte Caparrosoko eta horren erakusle aurre-historiako museora bisita gidatua egin diote kontseilariari hainbat ikasle.

## Elvira ikastetxea

## España

Bestalde, Tuterako Elvira España haur eta lehen hezkuntzako ikastetxera egindako bisitan Erriberako zuzendarien eta ADIPNA elkartearen ordezkariak banakin elkartu da kontseilaria. Izan ere, bi elkarteetako kideek sare publikoarekin duten konpromisoa helarazi nahi izan diote kontseilariari eta sare publikoaren kudeaketa hobetzeko hainbat proposamen luzatu. Eskola publikoaren sendotasuna azpimarratu nahi izan dute, eredu eta hizkuntza programa guztiak eskaintzen dituen, emaitza bikainekin, eta egunero ikasleen inklusioaren alde lan egiten duen ondo formatutako eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko konpromisoa duten irakasleak dituen.



Hezkuntza kontseilaria Erriberako zuzendarien eta ADIPNA elkarteko ordezkariekin.